

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

“Tech4all”-ek enpresa moduan ahalik eta eraginkorki funtzionatu dezan, baliabide guztiak aprobetxatzen ditu. Ondasun eta zerbitzuak ekoizteko, langileak modu efiziente baten funtzionatu ahal izateko eta batez ere, balio-proposamenaren eskaintza guztiz garatzeko beharrezkoak diren funtsezko baliabideei lehentasuna ematen zaie.



“Tech4all”-en ziurtatzen diren oinarrizko baliabide batzuk hauek dira: baliabide fisikoak, intelktualak, giza- eta fiantzak- baliabideak... Honako adibide batzuk hauek dira:

- Enpresaren funtzionamendu egokia bermatzeko, langile kopuru ideala prestatzen dira (5 langile), zereginak modu efiziente baten banatzeko eta zereginak ahalik eta modu optimoenean egiteko.
- Enpresak, bere izenean duen eraikina erabiltzen du, bezeroek erosketak modu presentzial eta pertsonal baten egin ahal izateko. Gainera, konpokatutako biltegian egiten dira, baita ere, erreserbatutako produktuen gordeketa.
- Gailu elektronikoei esker (ordenagailu eta tabletak), “Tech4all”-en web orria kudeatzen da, salmentak eta bezeroekiko harremanetan zentratuz, modu eroso batean erosketak egiteko tresna.

- “Tech4all”-en etorkizun arrakastatsua ziurtatzeko, enpresaren garapenean parte hartzen dituzten langileen ideiak eta ezagutza kontuan hartzen dira. Horrez gain, bakoitzaren prestakuntza eta abileziei esker, produktuen konpoketen eta zerbitzuen kalitatea bermatzen da.
- “Tech4all”-eko fundatzaileei esker, enpresaren airearatzea posiblea izan da, beharrezko aurrezkien bidez. Bestalde, alde batera uzten den diru kantitatea, gailuen konpoketetan aritzeko zati eta konponente teknologikoak eskuratzeko erabiltzen da.
- Lan-postuaren arabera soldata justuak ordaintzen dira, beharginen bizimodu erosoa ziurtatu dezan.